

## GAKO EKONOMIKOAK

- AEBen eta Txinaren arteko negoziazio komertzialen tonua hobetu da, eta Brexitaren inguruko agertoki txarrenak urruntzen doaz. Hazkuntza globalaren berrikusketa berriz ere beherantz.
- Bursako indizeen igoerak, urteko maximoen inguruan.
- Europako zor publikoko posizioen salmenta arriskutik gutxiago aldentzen den eszenatoki batean. Errenta finko pribatua hoberantz egiten.
- Dibisen merkatuan, euroa moteldu da dolarrearekiko.

## MAKROEKONOMIA ETA MERKATUAK

Azaroak AEB eta Txina arteko merkataritza negoziazioen hobekuntza sentsazioak bultzatuta tonu baikorrekin itxi du azaroak. Oraingoan ere, inbertitzaileen arreta gunea merkataritza ingurunea izan baita. Bi potentzien arteko merkataritzako negoziatioetan egindako aurrera pausoak ikusita, badirudi lehenengo akordioa sinatetik hurbil egon gaitezkeela. Izan ere, jabetza intelektualaren segurtasuna sendotzeko jarraibideen multzoa ezagutzera eman zuen Txinak, eta hori zen, hain zuzen ere, Estatu Batuek espero zen eskakizun handienetako bat. Halere, hilaren bukaeran, Trump-ek Hong Kong-eko manifestarien aldeko Kongresuaren ebazpena sinatu zuen, eta Asiako erraldoiak bere barne arazoetan sartzetaz hartu duen hori. Prozesua zailagotu zen horrela. Bestetik, eta arlo politikoa dagokionez, Europa mailan, Espainian hauteskundeak izan ziren berriz ere, eta alderdi sozialistak irabazi zuen, baina ez gehiengo absolutuarekin. Podemos alderdiarekin itundu behar izan zuen, gobernu berria eratze aldera. Brexitak, bestetik, titularrak ematen jarraitu zuen abenduaren 12ko hauteskundeak hurbildu ahala. Zundaketen arabera, kontserbadoreak dira faborito. Bien bitartean, makro arloan, urtearen hirugarren hiruilekoan, Estatu Batuetako ekonomia %2,1ko erritmoan areagotzen ari zela jakin zen, kontsumo pribatuak bultzatuta, zeina sendo jarraitzen duen. Aldi berean, euro zonan, Europar Batasunak bere aurreikuspenak eguneratzen zituen. Entitateak hamarren bat jaitsi zuen (%1,2tik % 1,1era) 2019rako Eurozonaren hazkuntza aurreikuspena, eta hiru hamarren jaitsi zen 2020an. Halere, Alemaniak atzerapen teknikoak saihestu zuen eta desazelerazio ekonomikoaren egoera txarrena atzean utzi genuela zirudien aurreratutako datuen arabera. Azkenik, Banku Zentralei dagokienez, Fedak urtean hirugarren aldiz jaitsi zituen tasak eta amaitutzat eman zuen doikuntza zikloaren erdian, eta BCEk sartutako estimuluak babesten zituen, Draghiren agurrean.

## ERRENTA ALDAKORRA

Munduko burtsa nagusiek igoera orokorrak izan zituzten Azaroaren bukaeran, merkatu emergenteren bat edo Txinako burtsa izan ezik, azken hau Hong Kongeko iraultzen ondorioz. Estatu Batuen eta Txinaren arteko lehenengo akordioak eragindako baikortasuna merkatuetara iritsi zen. Ondorioz, Amerikako indizeek historiako maximo berriekin itxi zuten. Dow Jones indizeak 28.000 puntuak gainditu zituen lehenengoz, % 3,27ko birbalorizazioari esker. Merkataritza akordioaren inguruko aurrera pausoek, banku zentralen jarraitutasunarekin eta Brexitaren aldi baterako lasaitzearekin batera, Europako merkatuak ere azaroa positiboan ixtea eragin zuten. Hortaz, Eurotoxx 50 indizeak % 2,75ko igoera izan zuen, Europako indize nagusien ildo berean, Ibx35 izan ezik, zeinak % 1ko aurrerapenarekin Europako plazetako azken postuetan bukatu zuen. Japoniar selektiboa ere Munduko indize nagusien atzeko postuetan kokatu zen % 1,60ko birbalorizazioarekin, eta emergenteen indize globala bakarrik amaitu zuen negatiboan, -% 0,19ko jaitsierarekin.

INDIZEA	ESKUALDEA	ORAINGO MAILA	DIBISA	HILEKO ALDAK.	2019ko ALDAK.
IBEX-35	ESPAINIA	9.352,00	EUR	%1,02	%9,51
EUROSTOXX-50	EUROPA	3.703,58	EUR	%2,75	%23,39
S&P-500	AEB	3.140,98	USD	%3,40	%25,30
DOW JONES	AEB	28.051,41	USD	%3,72	%20,25
NASDAQ 100	AEB	8.403,68	USD	%3,96	%32,76
NIKKEI-225	JAPONIA	23.293,91	JPY	%1,60	%16,38
EMERG. MSCI	EMERGENTEAK	1.040,05	USD	%-0,19	%7,69
MUNDUKO MSCI	GLOBALA	2.292,26	EUR	%2,63	%21,68

Iturria: Bloomberg

## ERRENTA FINKOA

Arriskuarekiko beldur txikiagoak berriz ere bultzatu zituen inbertitzaileak Europako eta Amerikako zor publikoan posizioak saltzera. Hortaz, 10 urterako bonu alemana oinarritzko 5 puntu igo zituen eta, hilaren bukaeran, -% 0,36ko errentagarritasuna eskaintzen zuen. Amerikako homologoak, aldiz, oinarritzko 8 puntu irabazi zituen eta % 1,78rekin bukatu zuen. Ildo berean, espainiar bonuen etekinak igo zuen, baina intentsitate handiagoarekin, 10N hauteskundearen eraginez. Arriskuak hartzeak merkatutako merkatuko ingurune batean, errenta finko pribatuak hoberantz egin zuen eta zor publikoarekiko diferentziala murriztu zuen.

INDIZEA	EPEA	ORAINGO MAILA	HILEKO ALDAK.	2019ko ALDAK.
EURIBOR	3 HIL.	-0,40	0,00	-0,09
	6 HIL.	-0,34	0,00	-0,11
	12 HIL.	-0,27	0,00	-0,16
ALEMANIAKO ZOR PUBLIKOAK	2 URTE	-0,63	0,03	-0,02
	5 URTE	-0,58	0,04	-0,27
ESPAINIAKO ZOR PUBLIKOAK	10 URTE	-0,36	0,05	-0,60
	2 URTE	-0,39	0,04	-0,14
	5 URTE	-0,09	0,11	-0,43
	10 URTE	0,42	0,18	-1,00

Iturria: Bloomberg

## DIBISAK

Euroaren eta dollarren arteko gurutzatzea 1,102 dolarretan bukatu da azaroan, 2019 osoan zehar europar dibisak izan duen beheranzko tonuaren adierazle. Europako hazkuntzaren beheranzko berrikusketak, espero baino hobeak ziren amerikar makro datuekin batera eta banku zentralen ekintzak daude mugimendu honen atzean. Moneta ingelesak balioa galdu zuen euroarekiko eta 0,85£/eur balioan jarri zen.

Euro/Dolar



Iturria: Bloomberg